2.– Contribución al primer tramo del Fondo General de Ajuste:

a) La contribución de las instituciones comunes al primer tramo del Fondo alcanzará el importe que resulte de aplicar a su cuantía el coeficiente de distribución vertical señalado en el artículo 5.

## 18. artikulua.– Definizioa eta helburua.

Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak urtero ezarriko du Egokitzapenerako Funts Orokor bat, eta erakunde erkideek eta hiru foru-aldundiek ekarpenak egingo dizkiote; xedea bikoitza izango da: batetik, ziurtatzea ezen, arau- edo kudeaketa-desberdintasunen ondoriozko arrazoiak salbu, foru-aldundi bakoitzak Euskal Autonomia Erkidegoko diru-bilketa banatu beharreko osoan izango duen partaidetza erlatiboa, behin funtsera eman beharrekoa kenduta, bere ekarpen-koefiziente horizontalaren % 99ra iritsiko dela, eta, bestetik, Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluaren iritziz funts horrekin erantzun behar zaion ohiz kanpoko beste edozein gorabeherari erantzutea.

Egokitzapenerako Funts Orokorra bi tarte bereizitan egituratuko da, horien guztien muga ez da izango 4. artikuluan definitu diren banatu beharreko baliabideen % 1,45 baino handiagoa, eta tarte bakoitzaren zenbatekoa, eman beharrekoa eta banaketa instituzionala, bai behinbehinekoz bai behin betiko kalkulatzeko, hurrengo artikuluan ezarritako arauen arabera zehaztuko dira.

## 19. artikulua.– Zenbatekoa, eman beharrekoa eta banaketa.

A) Egokitzapenerako Funts Orokorraren lehen tartea.

1.– Egokitzapenerako funts orokorraren lehen tartearen zenbatekoa.

Egokitzapenerako Funts Orokorraren lehen tartearen gehieneko zenbatekoa ez da izango 4. artikuluan definitutako banatu beharreko baliabideen % 1 baino handiagoa, eta hauen arteko zatiduraren bitartez zehaztuko da:

– Batetik, 1.1.a) artikuluan definitutako banaketapeko diru-bilketari aplikatuz gero foru-aldundi bakoitzaren ekarpen-koefiziente horizontalaren % 99ren eta foru-aldundi bakoitzak banaketapeko diru-bilketan duen partaidetza erlatiboaren arteko diferentzia, hortik ateratzen diren zeinu positiboko zenbatekoen batura, eta

– Bestetik, erakunde erkideen eta foru-aldundien koefiziente bertikalen batura, baldin eta haien diru-bilketa erlatiboa ekarpen-koefiziente horizontalaren % 99tik gora badago.

Ondorio horietarako, foru-aldundi bakoitzari dagokion koefiziente bertikala zehazteko, bakoitzaren koefiziente horizontala aplikatu behar zaio erakunde erkideen koefiziente bertikalaren osagarriari.

2.– Egokitzapenerako Funts Orokorraren lehen tarterako eman beharrekoa:

a) Erakunde erkideek funtsaren lehen tarteari eman beharrekoa kalkulatzeko, 5. artikuluan adierazitako banaketa bertikaleko koefizientea aplikatuko zaio haren zenbatekoari.

b) El resto corresponderá a las diputaciones forales de acuerdo a sus respectivos coeficientes horizontales de aportación.

B) Segundo tramo del Fondo General de Ajuste.

1.– Importe del segundo tramo del Fondo General de Ajuste.

El segundo tramo del Fondo General de Ajuste se activará cuando por aplicación del primer tramo no se haya alcanzado para todas las diputaciones forales la garantía del 99 % señalada en el artículo 18. El importe máximo del segundo tramo no superará el 0,45 % de los recursos a distribuir definidos en el artículo 4 y su cuantía se determinará por el cociente entre:

– La suma de los importes de signo positivo que resulten de aplicar a la recaudación sujeta a reparto definida en el artículo 1.1.a), la diferencia entre el 99 % del coeficiente horizontal de aportación y la respectiva participación relativa en la recaudación sujeta a reparto para cada diputación foral, y

– La suma de los porcentajes de contribución al fondo de las instituciones comunes y de las diputaciones forales cuya recaudación relativa se haya situado por encima del 99 % de su coeficiente horizontal de aportación.

A estos efectos, la participación relativa en la recaudación sujeta a reparto de cada diputación foral se recalculará una vez incorporada a la recaudación la cuantía neta del primer tramo del Fondo General de Ajuste.

2.– Contribución al segundo tramo del Fondo General de Ajuste:

a) La contribución de las instituciones comunes al segundo tramo del Fondo General de Ajuste alcanzará el importe que resulte de aplicar a su cuantía el porcentaje del 50 %.

b) El restante 50 % corresponderá a las diputaciones forales de acuerdo a sus respectivos coeficientes horizontales de aportación.

c) Normas comunes a ambos tramos del Fondo General de Ajuste.

b) Gainerakoa foru-aldundiei egokituko zaie, bakoitzari bere ekarpen-koefiziente horizontalaren arabera.

B) Egokitzapenerako Funts Orokorraren bigarren tartea.

1.– Egokitzapenerako funts orokorraren bigarren tartearen zenbatekoa.

Egokitzapenerako Funts Orokorraren bigarren tartea aktibatuko da baldin eta, lehen tartea aplikatuta, foru aldundi guztietarako ez bada lortu % 99ko bermea, 18. artikuluan adierazia. Bigarren tartearen gehienezko muga ez da izango 4. artikuluan definitu diren banatu beharreko baliabideen % 0,45 baino handiagoa, eta tarte horren zenbatekoa hauen arteko zatiduraren bitartez zehaztuko da:

– Batetik, 1.1.a) artikuluan definitutako banaketapeko diru-bilketari aplikatuz gero foru aldundi bakoitzaren ekarpen-koefiziente horizontalaren % 99ren eta foru-aldundi bakoitzak banaketapeko diru-bilketan duen partaidetza erlatiboaren arteko diferentzia, hortik ateratzen diren zeinu positiboko zenbatekoen batura, eta

– Bestetik, batura hau: erakunde erkideek funtsari eman beharrekoaren ehunekoa gehi diru-bilketa erlatiboa ekarpen-koefiziente horizontalaren % 99kotik gora duten foru-aldundiek funtsari eman beharrekoaren ehunekoa.

Ondorio horietarako, foru-aldundi bakoitzak banaketapeko diru-bilketan duen partaidetza erlatiboa berriz kalkulatuko da, Egokitzapenerako Funts Orokorraren lehen tartearen zenbateko garbia diru-bilketari gehitu ondoren.

2.– Egokitzapenerako Funts Orokorraren bigarren tarterako eman beharrekoa:

a) Erakunde erkideek Egokitzapenerako Funts Orokorraren bigarren tarteari eman beharrekoa bere zenbatekoari % 50eko ehunekoa aplikatuta ateratzen da.

b) Gainerako % 50a foru-aldundiei egokituko zaie, bakoitzari bere ekarpen-koefiziente horizontalaren arabera.

c) Egokitzapenerako Funts Orokorraren bi tarteen arau komunak.

1.– En el supuesto de que por aplicación de lo dispuesto en el apartado 2 de las letras A) y B) anteriores la contribución que resulte para alguna diputación foral no beneficiaria del Fondo supere el importe de la diferencia entre su recaudación real y el resultado de aplicar el 99 % de su coeficiente horizontal de aportación a la recaudación sujeta a reparto definida en el artículo 1.1.a), su contribución al primer tramo del Fondo o, en su caso, al segundo tramo, quedará fijada en el importe de dicha diferencia. La diputación foral que no siendo beneficiaria del Fondo no se encuentre en este supuesto, asumirá el importe restante hasta completar la contribución del conjunto de las diputaciones forales, con el límite de que el importe de su contribución total no supere la diferencia entre su recaudación real y el resultado de aplicar su coeficiente horizontal de aportación a la recaudación sujeta a reparto definida en el artículo 1.1.a).

1.– Aurreko A) eta B) letretako 2. apartatuan xedatutakoa aplikatuta, gerta liteke Funtsaren onuradun ez den foru-aldundiren bati ateratzen zaion eman beharrekoak bi hauen arteko diferentziaren zenbatekoa gainditzea: alde batetik, aldundiaren benetako bilketa, eta, bestetik, 1.1.a) artikuluan definitutako banaketapeko diru-bilketari aldundiaren ekarpen-koefiziente horizontalaren % 99 aplikatzearen emaitza. Hala gertatuz gero, aldundi horrek Funtsaren lehen tarteari edo, hala badagokio, bigarren tarteari eman beharrekoa diferentzia horren zenbatekoa izango da. Funtsaren onuraduna ez den eta kasu horretan ez dagoen foru-aldundiak bere gain hartuko du gainerako zenbatekoa, foru-aldundi guztiek eman beharrekoa osatu arte. Muga izango da hark eman beharreko guztiaren zenbatekoak ez gainditzea bi hauen arteko diferentzia: batetik, aldundi horren benetako bilketa, eta, bestetik, 1.1.a) artikuluan definitutako banaketapeko diru-bilketari aldundi horren ekarpen-koefiziente horizontala aplikatzearen emaitza.

2.– En el supuesto de que, situándose la recaudación relativa de dos diputaciones forales por debajo del 99 % de su respectivo coeficiente horizontal de aportación, la cuantía total del primer tramo del Fondo General de Ajuste o, en su caso, del segundo tramo, resulte insuficiente para que ambas alcancen dicho porcentaje, su distribución, excluida la contribución de dichas diputaciones, se realizará de forma proporcional al importe que cada una de ellas necesita para alcanzar dicho 99 %.

2.– Baldin eta bi foru-aldundiren diru-bilketa erlatiboa bakoitzaren ekarpen-koefiziente horizontalaren % 99tik beherakoa bada, eta funtsaren lehen tartearen zenbateko osoa, edo, hala badagokio, bigarren tartearena, ez bada nahikoa biek ehuneko horretara iristeko, funtsaren banaketa, aldundi horiek eman beharrekoa kenduta, haietako bakoitzak % 99 horretara iristeko behar duen zenbatekoaren proportzioan egingo da.

3.– Si por aplicación de los límites de ambos tramos del Fondo General de Ajuste no fuera posible garantizar a las diputaciones forales una recaudación relativa del 99 % de su coeficiente horizontal de aportación, el Consejo Vasco de Finanzas Públicas a la vista de los resultados finales y después de dictaminar, previo informe, que la participación relativa en la recaudación sujeta a reparto definida en el artículo 1.1.a) de la diputación o diputaciones forales que se hayan situado por debajo del 99 % de su respectivo coeficiente horizontal de aportación no ha sido el resultado de diferencias normativas o de gestión respecto al resto de diputaciones forales, adecuará la cuantía del Fondo General de Ajuste, respetando en todo caso los límites a la contribución de cada institución establecidos en este artículo.

3.– Egokitzapenerako Funts Orokorraren bi tarteen mugak aplikatuta ezin bada foru-aldundietarako bermatu beren ekarpen-koefiziente horizontalaren % 99ko diru-bilketa erlatiboa, Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak, azken emaitzak ikusita eta txostena egin ondoren, ebazten badu ezen, delako foru-aldundiak edo direlako foru-aldundiek 1.1.a) artikuluan definitzen den banaketapeko diru-bilketan duten partaidetza erlatiboa bakoitzaren ekarpen-koefiziente horizontalaren % 99tik behera gelditu bada, emaitza hori ez dela gertatu beste foru aldundiekiko arau- edo kudeaketa-diferentziengatik, egokitu egingo du Egokitzapenerako Funts Orokorraren zenbatekoa, beti errespetatuta erakunde bakoitzak eman beharrekoari ezarritako mugak, artikulu honetan ezarriak.

CAPÍTULO V

## PARTICIPACIÓN DE LAS ENTIDADES LOCALES EN LOS TRIBUTOS CONCERTADOS

V. KAPITULUA

## TOKI ERAKUNDEEN PARTAIDETZA TRIBUTU ITUNDUETAN

### Artículo 20.– Participación de las entidades locales en los tributos concertados.

1.– Las haciendas locales participarán en los ingresos sujetos a reparto a los que se refiere el artículo 1.1 una vez descontados el Cupo a satisfacer al Estado, las aportaciones a las instituciones comunes y la financiación específica de las diputaciones forales, así como en el importe neto, positivo o negativo del Fondo General de Ajuste en los términos previstos en este capítulo.

### 20. artikulua.– Toki-erakundeen partaidetza tributu itunduetan.

1.– Toki-ogasunek partaidetza izango dute 1.1 artikuluan aipatzen diren banaketapeko diru-sarreretan hauek deskontatu ondoren: Estatuari ordaindu beharreko kupoa, erakunde erkideei egin beharreko ekarpenak eta foru-aldundien berariazko finantzaketa, bai eta Egokitzapenerako Funts Orokorraren zenbateko garbi positibo edo negatiboa ere, kapitulu honetan aurreikusitako moduan.

2.– Los órganos forales de los territorios históricos destinarán, a través de la financiación general y, en su caso, de los planes específicos de inversión, a las entidades locales de ellos dependientes, en concepto de participación en la recaudación por tributos concertados, como mínimo el 39,23 % de los recursos disponibles del territorio histórico, calculados como resultado de la siguiente expresión:

RDI = RI – DI – PI – AGI – TI ± FGI

donde,

RDi = recursos disponibles

Ri = ingresos sujetos a reparto

Di = deducciones procedentes de la metodología de señalamiento del cupo a las que se refiere el artículo 2

Pi = deducción especial a la que se refiere el artículo 3

AGi = aportación general a las instituciones comunes

Ti = valoración de los nuevos traspasos desde las instituciones comunes a las diputaciones forales a los que se refiere el artículo 9.1

FGi = importe neto del Fondo General de Ajuste

El subíndice i indica que el importe de cada concepto será el efectivamente correspondiente a cada territorio histórico.

2.– Lurralde historikoetako foru-organoek, finantzaketa orokorraren bidez eta, hala badagokio, inbertsio-plan espezifikoen bidez, beren mendeko toki-erakundeei bideratuko diete, tributu itunduen bilketan parte izan dezaten, lurralde historikoan erabilgarri dauden baliabideen % 39,23 gutxienez, honako adierazpen honen arabera kalkulatuta:

RDI = RI – DI – PI – AGI – TI ± FGI

non:

RDi = baliabide erabilgarriak

Ri = banatu beharreko diru-sarrerak

Di = kupoa zehazteko metodologiatik datozen kenkariak, 2. artikuluan aipatzen direnak

Pi = 3. artikuluan aipatzen den kenkari berezia

AGi = erakunde erkideentzako ekarpen orokorra

Ti = Erakunde erkideek foru-aldundiei egindako eskualdaketa berrien balorazioa, 9.1 artikuluan aipatzen dena

FGi = Egokitzapenerako Funts Orokorraren zenbateko garbia

i azpi-indizeak adierazten du kontzeptu bakoitzaren zenbatekoa lurralde historiko bakoitzari benetan dagokiona izango dela.

### Artículo 21.– Determinación de la participación de las entidades locales en los tributos concertados en cada territorio histórico.

1.– Los órganos forales de los territorios históricos, sin perjuicio de sus facultades reconocidas en el Concierto Económico y en la Ley 27/1983, atenderán a los principios de suficiencia financiera y riesgo compartido al establecer anualmente la participación de las entidades locales en los ingresos concertados correspondientes a los territorios históricos.

2.– La determinación de la participación que en cada territorio histórico corresponde a cada una de sus entidades locales, es competencia de los órganos forales de dicho territorio histórico y, en consecuencia, la ejercitará libremente, de acuerdo con lo previsto en las normas forales y, sin perjuicio de la recomendación a que se refiere el apartado siguiente.

3.– Se establece, con carácter de recomendación de política fiscal a los órganos forales de los territorios históricos, que los criterios para el citado reparto procuren una política de gasto corriente global equitativa y solidaria, y se fijen atendiendo, al menos, a la población, al esfuerzo fiscal y, en su caso, a la singularidad organizativa de las entidades locales de cada territorio histórico.

### 21. artikulua.– Toki-erakundeek lurralde historiko bakoitzeko tributu itunduetan izango duten partaidetza zehaztea.

1.– Lurralde historikoetako foru-organoek, Ekonomia Itunean eta 27/1983 Legean aitortuta dituzten ahalmenak deusetan galarazi gabe, finantza-nahikotasunaren eta arrisku partekatuaren printzipioak beteko dituzte hau zehazten dutenean, urtero: toki-erakundeek zer partaidetza izango duten lurralde historikoei dagozkien diru-sarrera itunduetan.

2.– Lurralde historiko bakoitzean toki-erakundeek zenbateko partaidetza izango duten zehaztea lurralde historikoko foru-organoen eskumena da, eta, ondorioz, organo horiek askatasun osoz baliatuko dute eskumen hori, foru-arauetan aurreikusitakoarekin bat etorriz eta ezertan eragotzi gabe hurrengo apartatuaren gomendioa.

3.– Lurralde historikoetako foru-organoei politika fiskaleko gomendio gisa ezartzen zaie banaketa hori egiteko irizpideek bila dezatela gastu arruntari buruz berdintasunezko eta elkartasunezko politika orokorra lortzea, eta kontuan har daitezela, gutxienez, biztanleria, ahalegin fiskala eta, hala badagokio, lurralde historiko bakoitzeko toki-erakundeen antolamendu-berezitasuna.

### Artículo 22.– Traspasos de funciones y servicios desde las instituciones comunes a las entidades locales.

La financiación correspondiente a los traspasos de funciones y servicios de las instituciones comunes a las entidades locales se regulará por acuerdo específico del Consejo Vasco de Finanzas Públicas.

CAPÍTULO VI

## REGLAS OPERATIVAS Y OBLIGACIONES DE INFORMACIÓN

### Artículo 23.– Cálculo provisional y liquidación de las deducciones procedentes de la metodología de señalamiento del cupo.

1.– La cuantía provisional de las deducciones a las que se refiere el artículo 2 serán las resultantes de la aplicación, en cada ejercicio, de lo estipulado en la metodología de señalamiento del cupo vigente.

2.– Los importes que se deriven de la liquidación definitiva de las deducciones procedentes de la metodología de señalamiento del cupo se computarán en el ejercicio en que se realice dicha liquidación.

### Artículo 24.– Cálculo provisional y plazos de pago de las aportaciones.

1.– Para el cálculo de las aportaciones, general y específicas, de las diputaciones forales a las instituciones comunes, a efectuarse durante el ejercicio presupuestario de que se trate, se aplicará la previsión de los ingresos a los que se refiere el artículo 1, realizada por el Consejo Vasco de Finanzas Públicas, así como el resto de los mecanismos detallados en la presente metodología, a los efectos de formular los presupuestos del ejercicio.

2.– La cuantía provisional de los intereses líquidos devengados a favor de las diputaciones forales por razón de ingresos fiscales concertados durante cada ejercicio a que se refiere el artículo 1.1.b), se obtendrá aplicando a la prevista para el año anterior el índice de actualización a que se refiere el artículo 25, ponderado por el índice resultante del cociente entre la previsión del tipo de interés bruto a acordar por la Administración de la Comunidad Autónoma con las instituciones financieras de la Comunidad para el ejercicio de que se trate y dicha previsión para el ejercicio inmediatamente anterior.

3.– La cuantía provisional de la deducción especial a que se refiere el artículo 3 se obtendrá aplicando a la correspondiente previsión para el ejercicio anterior el índice de actualización a que se refiere el artículo 25.

4.– Las diputaciones forales llevarán a cabo, en los plazos que determina el artículo 25 de la Ley 27/1983, seis entregas iguales, por el importe global provisional resultante de la aplicación del apartado 1 del presente artículo.

### 22. artikulua.– Erakunde erkideek eginkizunak eta zerbitzuak eskualdatzea toki-erakundeei.

Eginkizunak eta zerbitzuak erakunde erkideetatik toki-erakundeetara eskualdatzeari dagokion finantzaketa Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluaren berariazko akordio bidez arautuko da.

VI. KAPITULUA

## ERAGIKETA ARAUAK ETA INFORMATZEKO BETEBEHARRA

### 23. artikulua.– Kupoa zehazteko metodologiatik datozen kenkarien behin-behineko kalkulua eta likidazioa.

1.– Bigarren artikuluan aipatutako kenkarien behin-behineko zenbatekoa kalkulatzeko, ekitaldi bakoitzean aplikatuko da kupoa zehazteko indarreko metodologian xedatutakoa.

2.– Kupoa zehazteko metodologiatik datozen kenkarien behin betiko likidaziotik eratorritako zenbatekoak likidazio hori egiten den ekitaldian zenbatuko dira.

### 24. artikulua.– Ekarpenen behin-behineko kalkulua eta ordaintzeko epeak.

1.– Foru-aldundiek erakunde erkideei dagokion aurrekontu-ekitaldian egin beharreko ekarpen orokor eta bereziak kalkulatzeko, 1. artikuluan aipatutako diru-sarreren aurreikuspena aplikatuko da, Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak egina, bai eta metodologia honetan zehaztutako gainerako mekanismoak ere. Hori guztia, ekitaldiko aurrekontuak egin ahal izan ditzaten.

2.– Ekitaldi bakoitzean diru-sarrera fiskal itunduak direla-eta foru-aldundien alde sortutako interes likidoei dagokienez, 1.1.b) artikuluan aipatzen baitira, haien behin-behineko zenbatekoa kalkulatzeko, aurreko urterako aurreikusitakoari 25. artikuluan aipatutako eguneratze-indizea aplikatuko zaio, zatidura honetatik ateratako indizearekin ere haztatuta: Autonomia Erkidegoko Administrazioak Erkidegoko finantza-erakundeekin dena delako ekitaldirako itundu beharreko interes-tasa gordinaren aurreikuspena zati aurre-aurreko ekitaldirako aurreikuspena.

3.– Hirugarren artikuluan aipatutako kenkari bereziaren behin-behineko zenbatekoa ateratzeko, 25. artikuluan aipatutako eguneratze-indizea aplikatuko zaio aurreko ekitaldirako aurreikuspenari.

4.– Foru-aldundiek, 27/1983 Legearen 25. artikuluan zehaztutako epeetan, sei entrega berdin egingo dituzte, artikulu honen 1. apartatua aplikatuz ateratako behin-behineko zenbateko osoa bete arte.

### Artículo 25.– Índice de actualización.

El índice de actualización al que se refieren los artículos 24.2 y 24.3 será el cociente entre la previsión de recaudación por tributos concertados, en concreto los recogidos en el artículo 1.1.a), a nivel de la Comunidad Autónoma para el ejercicio de que se trate, y dicha previsión de recaudación para el ejercicio inmediatamente anterior.

### 25. artikulua.– Eguneratze-indizea.

24.2 eta 24.3 artikuluetan aipatzen den eguneratze-indizea zatidura honen emaitza izango da: tributu itunduak direla eta, zehazki 1.1.a) artikuluan jasotakoak, kasuan kasuko ekitaldian Autonomia Erkidegoan aurreikusitako diru-bilketa zati aurreko ekitaldirako diru-bilketaren aurreikuspena.

### Artículo 26.– Modificación de las aportaciones.

1.– Una vez efectuada la liquidación definitiva del cupo a pagar al Estado y de las compensaciones previstas en la metodología de señalamiento del cupo vigente, se procederá a incorporar los resultados de las mismas en las deducciones definidas en el artículo 2, así como a modificar las aportaciones específicas a que se refiere el artículo 7, en los términos que proceda.

Del mismo modo se procederá, en su caso, con las modificaciones efectuadas en el cupo provisional y en las compensaciones provisionales.

2.– Las modificaciones de las aportaciones que se deriven de lo previsto en el apartado anterior así como en los artículos 8, 9, 10 y 11 serán distribuidas por partes iguales entre los plazos señalados en el artículo 25 de la Ley 27/1983, aún pendientes de vencimiento.

### 26. artikulua.– Ekarpenen aldaketa.

1.– Estatuari ordaindu beharreko kupoaren eta kupoa zehazteko indarreko metodologian aurreikusitako konpentsazioen behin betiko likidazioa egin ondoren, horien emaitzak 2. artikuluan zehaztutako kenkarietan sartuko dira, eta 7. artikuluan aipatutako ekarpen bereziak aldatu, dagokionaren arabera.

Era berean jardungo da, hala badagokio, behin-behineko kupoan eta behin-behineko konpentsazioetan egindako aldaketekin.

2.– Aurreko apartatuan eta 8., 9., 10. eta 11. artikuluetan aurreikusitakotik eratortzen diren ekarpen-aldaketak zati berdinetan banatuko dira 27/1983 Legearen 25. artikuluan aipatu eta oraindik mugaeguneratu gabe dauden epeetan.

### Artículo 27.– Preliquidación de las aportaciones.

En el momento en que se efectúe la sexta aportación se procederá a realizar un ajuste preliquidatorio, en base a las previsiones de liquidación de los ingresos derivados de la gestión del Concierto Económico definidos en el artículo 1, aprobadas por el Consejo Vasco de Finanzas Públicas dentro de la primera quincena del mes de octubre de cada ejercicio.

### 27. artikulua.– Ekarpenen aurrelikidazioa.

Seigarren ekarpena egiten den unean, likidazio aurreko doikuntza bat egingo da, oinarritzat hartuta 1. artikuluan definitu diren eta Ekonomia Itunaren kudeaketatik datozen diru-sarreren likidazio-aurreikuspenak. Aurreikuspen horiek Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak onartuko ditu ekitaldi bakoitzeko urriko lehen hamabostaldian.

### Artículo 28.– Liquidación de las aportaciones.

1.– Dentro de la primera quincena del mes de febrero del ejercicio siguiente el Consejo Vasco de Finanzas Públicas practicará la liquidación de las aportaciones.

2.– A los efectos de esta liquidación se tomarán los datos reales relativos a los ingresos a los que se refiere el artículo 1.1.a) según los datos reflejados en las certificaciones emitidas a tal efecto por las diputaciones forales.

Cuando en periodo voluntario se admita el pago de la deuda tributaria mediante la entrega de bienes y derechos, el importe de la deuda cancelada en cada ejercicio se certificará por las diputaciones forales. Este importe se adicionará a los datos de las certificaciones mencionadas en el párrafo anterior a efectos de realizar la liquidación de aportaciones.

En los supuestos de cancelación de deudas tributarias con la obtención de bienes o derechos ya sea en vía de apremio o en procedimientos concursales, su valoración, a efectos de la liquidación de aportaciones, se incorporará a los ingresos sujetos a reparto del ejercicio en que se realice su enajenación o adjudicación con carácter permanente. En estos supuestos el importe a incorporar será el derivado de la valoración que de dichos bienes y

### 28. artikulua.– Ekarpenen likidazioa.

1.– Hurrengo ekitaldiko otsailaren lehen hamabostaldian egingo du ekarpenen likidazioa Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak.

2.– Likidazio hori egiteko, 1.1.a) artikuluan aipatutako diru-sarrerei buruzko datu errealak hartuko dira kontuan, foru-aldundiek horretarako emandako ziurtagirietan jasotako datuen arabera.

Borondatezko epean onartuz gero tributu-zorra ordaintzea ondasunak eta eskubideak entregatuta, foru-aldundiek egiaztatuko dute ekitaldi bakoitzean kitatutako zorraren zenbatekoa. Zenbateko hori aurreko paragrafoan aipatutako ziurtagirien datuei gehituko zaie, ekarpenen likidazioa egiteko.

Tributu-zorrak kitatzen direnean ondasunak edo eskubideak eskuratuz premiamendu-bidean edo konkurtso-prozeduretan, ondasun-eskubide horien balorazioa, ekarpenen likidazioa egiteko, banatu beharreko diru-sarrera hauei gehituko zaie: ondasun-eskubide horien besterentzea edo behin betiko esleipena egiten den ekitaldikoei. Kasu horietan, sartu beharreko zenbatekoa Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak ondasun eta eskubide

derechos apruebe el Consejo Vasco de Finanzas Públicas, quien, cuando lo considere conveniente, podrá periodificar la integración de dicho importe a lo largo de varios ejercicios presupuestarios.

3.– Para la determinación del importe a liquidar de los intereses a que se refiere el artículo 1.1.b) y de la deducción especial a que se refiere el artículo 3, se procederá a revisar los importes provisionalmente fijados en función del índice que resulte de la recaudación real a nivel del País Vasco de los tributos concertados, específicamente los relacionados en el artículo 1.1.a) con respecto a los inicialmente previstos.

Adicionalmente, en el caso de los intereses, el resultado así obtenido será ponderado por el cociente entre el efectivo tipo de interés bruto acordado por la Administración de la Comunidad Autónoma con las instituciones financieras de la Comunidad para el ejercicio de que se trate y el inicialmente previsto.

4.– Las deducciones procedentes de la metodología de señalamiento del cupo a las que se refiere el artículo 2 a computar en la liquidación serán las que se deriven del cupo efectivamente pagado y de las compensaciones efectivamente realizadas durante el ejercicio.

### Artículo 29.– Previsión y liquidación de los ajustes entre las diputaciones forales.

1.– Las previsiones de recaudación de las diputaciones forales por el impuesto sobre el valor añadido, por cada uno de los impuestos especiales de fabricación y por el impuesto especial sobre la electricidad, se obtendrán por aplicación del respectivo coeficiente horizontal de aportación a la previsión de estos ingresos realizada por el Consejo Vasco de Finanzas Públicas.

2.– La instrumentación a lo largo del ejercicio de los ajustes a que se refiere el apartado anterior, es decir, su determinación, forma y plazos, se realizará conforme al procedimiento aprobado por el Consejo Vasco de Finanzas Públicas.

3.– Dentro de la primera quincena del mes de enero del ejercicio siguiente se practicará la liquidación de los ajustes, de acuerdo con los datos reales de recaudación del ejercicio.

4.– Las diputaciones forales contabilizarán el resultado de la liquidación de los ajustes correspondientes a un ejercicio dentro de los ingresos o pagos efectivos de dicho ejercicio.

### Artículo 30.– Cálculo provisional y liquidación del Fondo General de Ajuste.

1.– El Consejo Vasco de Finanzas Públicas de acuerdo a las previsiones presupuestarias establecerá el importe provisional del Fondo General de Ajuste, consignando cada institución la dotación provisional que le corresponda. Dos terceras partes del fondo provisional se aplicarán en el mes de junio coincidiendo con el plazo de pago de la aportación.

horiei buruz onartzen duen baloraziotik eratorritakoa izango da. Kontseiluak, egoki irizten dionean, zenbait aurrekontu-ekitalditan periodifikatu ahal izango du zenbateko horren integrazioa.

3.– Zehatz jakiteko zein den 1.1.b) artikuluan aipatzen diren interesen eta 3. artikuluan aipatzen den kenkari bereziaren likidazio-zenbatekoa, behin-behinean finkatutako zenbatekoak berrikusiko dira, indize hau aintzat hartuta: tributu itunduek, zehazki 1.1.a) artikuluan zerrendatutakoek, Euskal Autonomia Erkidegoan izandako benetako bilketak hasieran aurreikusitakoarekin duen erlazioaren arabera.

Horrez gain, interesen kasuan, horrela lortutako emaitza haztatu egingo da zatidura honekin: Autonomia Erkidegoko Administrazioak Erkidegoko finantza-erakundeekin dena delako ekitaldirako itundutako benetako interes-tasa gordina zati hasieran aurreikusitako interes-tasa.

4.– Bigarren artikuluan aipatutako Kupoa zehazteko metodologiatik datozen kenkariak likidazioan zenbatzeko, benetan ordaindutako kupotik eta ekitaldian zehar benetan egindako konpentsazioetatik etorri beharko dute.

### 29. artikulua.– Foru-aldundien arteko doikuntzen aurreikuspena eta likidazioa.

1.– Foru-aldundiek balio erantsiaren gaineko zergagatik, fabrikazio-zerga bereziengatik eta elektrizitatearen gaineko zerga bereziagatik bilduko dutenaren aurreikuspena ateratzeko, dagokion ekarpen-koefiziente horizontala aplikatuko zaio Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak dirusarrera horien gainean egindako aurreikuspenari.

2.– Aurreko apartatuan aipatutako doikuntzak ekitaldian zehar gauzatzeko, hau da, doikuntza horien zehaztapen, forma eta epeetarako, Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak onartutako prozeduraren arabera jokatuko da.

3.– Hurrengo ekitaldiko urtarrilaren lehen hamabostaldian egingo da doikuntzen likidazioa, ekitaldiko diru-bilketaren datu errealen arabera.

4.– Ekitaldi bateko doikuntzen likidazioaren emaitzari dagokionez, ekitaldi horretako benetako diru-sarrera edo ordainketen barruan kontabilizatuko dute foru-aldundiek.

### 30. artikulua.– Egokitzapenerako Funts Orokorraren behin-behineko kalkulua eta likidazioa.

1.– Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak, aurrekontu-aurreikuspenen arabera, Egokitzapenerako Funts Orokorraren behin-behineko zenbatekoa ezarriko du, eta erakunde bakoitzak dagokion behin-behineko zuzkidura jarriko du. Behin-behineko funtsaren bi heren ekainean aplikatuko dira, ekarpena ordaintzeko epearekin bat etorriz.

2.– Simultáneamente a la liquidación de las aportaciones el Consejo Vasco de Finanzas Públicas acordará la liquidación definitiva del Fondo General de Ajuste, tras dictaminar, previo informe, que la participación relativa en la recaudación total del País Vasco del territorio o territorios históricos que se haya situado por debajo del 99 % de su respectivo coeficiente horizontal no ha sido el resultado de diferencias normativas o de gestión respecto al resto de los territorios históricos.

2.– Ekarpenen likidazioarekin batera, Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak Egokitzapenerako Funts Orokorraren behin betiko likidazioa erabakiko du. Horretarako, txostena egin ondoren, ebatzia izan beharko du ezen, delako lurralde historikoak edo direlako lurralde historikoek Euskadiko diru-bilketa osoan duten partaidetza erlatiboa bakoitzaren koefiziente horizontalaren % 99tik behera gelditu bada, emaitza hori ez dela gertatu beste lurralde historikoekiko arau- edo kudeaketa-diferentziengatik.

### Artículo 31.– Liquidación de la participación de las entidades locales en los tributos concertados.

Los importes que resulten para cada ejercicio de la participación de las entidades locales en los ingresos a que hace referencia el artículo 1.1 estarán sujetos a liquidación una vez finalizado el ejercicio y realizada la liquidación prevista en los artículos 28 y 30.

### 31. artikulua.– Toki-erakundeek tributu itunduetan duten partaidetzaren likidazioa.

Toki-erakundeek 1.1 artikuluan aipatzen diren sarreretan duten partaidetzatik ekitaldi bakoitzerako ateratzen diren zenbatekoak likidatu egin beharko dira ekitaldia amaitu eta 28. eta 30. artikuluetan aurreikusitako likidazioa egin ondoren.

### Artículo 32.– Obligaciones de información.

1.– Las diputaciones forales remitirán al Gobierno Vasco la información que a continuación se detalla:

i) Certificación de los ingresos obtenidos por los diversos conceptos considerados como ingresos sujetos a reparto (R), dentro de los quince primeros días del mes siguiente a que corresponda y conforme a los modelos aprobados en el seno del Consejo Vasco de Finanzas Públicas.

ii) Información relativa a análisis comparativos y descriptivos respecto a las circunstancias concurrentes que puedan afectar a la evolución de los ingresos sujetos a reparto (R), igualmente dentro de los quince primeros días del mes siguiente a que corresponda, conforme a los modelos aprobados en el seno del Consejo Vasco de Finanzas Públicas.

iii) Las estadísticas tributarias cuyo contenido y periodicidad determine el Consejo Vasco de Finanzas Públicas.

iv) Información relativa a los bienes y derechos en que se haya materializado la recaudación por tributos concertados, conforme a los modelos y plazos aprobados en el seno del Consejo Vasco de Finanzas Públicas. Dicha información constituirá el registro conjunto de todos los bienes y derechos obtenidos como consecuencia de la recaudación de los tributos concertados.

2.– Asimismo, las diputaciones forales pondrán a disposición del Gobierno Vasco la certificación correspondiente de cuantos datos sean precisos para la realización de los cálculos a los que se refiere el presente capítulo VI.

El Gobierno Vasco pondrá a disposición de las diputaciones forales cuanta información sea precisa para la correcta aplicación de la presente metodología y de los flujos financieros que se deriven de la misma.

### 32. artikulua.– Informatzeko betebeharra.

1.– Foru-aldundiek informazio hau bidaliko diote Eusko Jaurlaritzari:

i) Banaketapeko diru-sarreratzat (R) jotako kontzeptuengatik lortutako diru-sarreren ziurtagiria, dagokion hilaren hurrengoaren lehenengo hamabost egunen barruan eta Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluan onartutako ereduen arabera.

ii) Banaketapeko diru-sarreren (R) bilakaeran eragina izan dezaketen inguruabarrei buruzko analisi konparatibo eta deskribatzaileei buruzko informazioa, halaber, dagokion hilaren hurrengoaren lehenengo hamabost egunen barruan, Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluan onartutako ereduen arabera.

iii) Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak edukia eta aldizkakotasuna zehaztuko dizkien tributu-estatistikak.

iv) Tributu itunduak direla-eta diru-bilketa gauzatzeko jasotako ondasun eta eskubideei buruzko informazioa, Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak onartutako eredu eta epeen arabera. Informazio hori tributu itunduen bilketaren ondorioz lortutako ondasun eta eskubide guztien erregistro bateratua izango da.

2.– Halaber, foru-aldundiek Eusko Jaurlaritzaren esku jarriko dute VI. kapitulu honetan aipatzen diren kalkuluak egiteko behar diren datu guztien ziurtagiria.

Eusko Jaurlaritzak foru-aldundien esku jarriko du metodologia hau eta horren ondoriozko finantza-fluxuak behar bezala aplikatzeko behar den informazio guztia.

### DISPOSICIÓN ADICIONAL PRIMERA

En el supuesto de que, por cambios introducidos en el Concierto Económico, en el sistema impositivo o derivados de la economía o cualquiera otra circunstancia de

### LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Baldin eta Ekonomia Itunean edo zerga-sisteman sartutako aldaketengatik edo ekonomiak edo salbuespeneko beste gorabeheraren batek eragindakoengatik funtsezko

carácter excepcional, fuese necesario introducir alteraciones sustantivas en el modelo de distribución de recursos y de determinación de las aportaciones, el Consejo Vasco de Finanzas Públicas podrá proponer las modificaciones metodológicas y de cálculo pertinentes. El Gobierno Vasco elevará al Parlamento para su aprobación el correspondiente proyecto de ley que incorpore las modificaciones que se propongan.

aldaketak egin behar badira baliabideak banatzeko eta ekarpenak zehazteko ereduan, Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak dagozkion metodologia- eta kalkulu-aldaketak proposatu ahal izango ditu. Proposatzen diren aldaketak jasotzen dituen lege-proiektua aurkeztuko dio Eusko Jaurlaritzak Legebiltzarrari, onar dezan.

## DISPOSICIÓN ADICIONAL SEGUNDA

1.– El Consejo Vasco de Finanzas Públicas podrá acordar los objetivos de estabilidad presupuestaria de las instituciones públicas del País Vasco, atendiendo a los compromisos que para las mismas se adopten en aplicación de lo previsto en el artículo 62 del Concierto Económico.

2.– A los efectos de dar cumplimiento a las previsiones de los artículos 14.2 y 27.4 de la Ley 27/1983, la coordinación y armonización de la política de endeudamiento y, en general, de la actividad financiera de la Hacienda General del País Vasco y de los territorios históricos corresponderá al Consejo Vasco de Finanzas Públicas.

Asimismo, a los efectos de dar cumplimiento a las previsiones de la Ley 27/1983, en su disposición adicional segunda, apartado 3.2, y en el artículo 115.2 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, las operaciones de crédito a plazo superior a un año que deseen concertar las entidades locales se coordinarán y armonizarán con las de los territorios históricos y con la política de endeudamiento de la Comunidad Autónoma en el seno del Consejo Vasco de Finanzas Públicas.

3.– Se articularán los mecanismos oportunos de seguimiento y control a fin de valorar el grado de cumplimiento de las directrices marcadas en cuanto a la política presupuestaria y financiera.

## BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

1.– Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak Euskal Autonomia Erkidegoko instituzio publikoen aurrekontuegonkortasuneko helburuak erabaki ahal izango ditu, kontuan hartuta zer konpromiso hartzen den haientzat Ekonomia Itunaren 62. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuta.

2.– 27/1983 Legearen 14.2 eta 27.4 artikuluetako aurreikuspenak betetzeko, Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluari egokituko zaio Euskadiko Ogasun Nagusiaren eta lurralde historikoen zorpetze-politika eta, oro har, finantza-jarduera koordinatzea eta harmonizatzea.

Era berean, 27/1983 Legearen bigarren xedapen gehigarriko 3.2 apartatuan eta apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 115.2 artikuluan jasotakoa betetze aldera, tokierakundeek itundu nahi dituzten urtebetetik gorako eperako kreditu-eragiketak, betiere, lurralde historikoen kreditu-eragiketekin eta Autonomia Erkidegoko zorpetzepolitikarekin koordinatu eta harmonizatuko dira, Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluaren barruan.

3.– Jarraipen- eta kontrol-mekanismo egokiak antolatuko dira, aurrekontu- eta finantza-politikari dagokionez ezarritako gidalerroen betetze-maila baloratzeko.

## DISPOSICIÓN ADICIONAL TERCERA

1.– El Consejo Vasco de Finanzas Públicas determinará la forma de financiación de planes y proyectos que, bien por incidir en competencias de la Administración del Estado, bien por tener una relevancia capital para la promoción y el desarrollo económico y social del País Vasco, precisen de una asignación de recursos muy importante y afecten al conjunto de todas las instituciones.

2.– Cuando la financiación de los planes y proyectos aprobados al amparo de esta disposición adicional se realice mediante su consideración como deducción especial al modelo de distribución vertical, se actuará conforme a lo establecido en los artículos 3 y 7, siendo su cuantía inicial y final la que determine el Consejo Vasco de Finanzas Públicas.

## HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

1.– Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak zehaztuko du zenbait plan eta proiektu finantzatzeko modua; hain zuzen ere, bai Estatuko Administrazioaren eskumenetan eragina dutelako, bai Euskadiko ekonomia eta gizartea sustatzeko eta garatzeko berebiziko garrantzia dutelako, baliabideesleipen oso garrantzitsua behar badute eta erakunde guztiei eragiten badiete.

2.– Xedapen gehigarri honen babesean onartutako plan eta proiektuen finantzaketa banaketa bertikaleko ereduaren kenkari berezitzat hartuz gero, 3. eta 7. artikuluetan ezarritakoaren arabera jokatuko da, eta Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak zehaztuko du hasierako eta amaierako zenbatekoa.

## DISPOSICIÓN ADICIONAL CUARTA

Si en el transcurso de la vigencia de la presente metodología al finalizar cada ejercicio se presentaran desequilibrios económico-financieros en alguna o algunas de las instituciones forales producidas por el diferente peso específico que las mismas tienen en el modelo de distribución de recursos, el Consejo Vasco de Finanzas Públicas, tras realizar los informes pertinentes, adoptará las medidas necesarias para su corrección.

## LAUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Metodologia honen indarraldian, ekitaldi bakoitza amaitzean, foru-erakunderen batean edo batzuetan ekonomiaeta finantza-desorekarik agertuz gero, baliabideen banaketa-ereduan duten pisu espezifiko desberdinaren ondorioz sortua, Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak, dagozkion txostenak egin ondoren, horiek zuzentzeko behar diren neurriak hartuko ditu.

## DISPOSICIÓN ADICIONAL QUINTA

Si el importe de los intereses líquidos provisionales a los que se refiere el artículo 24.2 resultara cero en un ejercicio debido a un valor condicionante del ejercicio inmediatamente anterior que imposibilitase el cálculo de los intereses para ejercicios posteriores, el Consejo Vasco de Finanzas Públicas adoptará los acuerdos oportunos para determinar el importe provisional de referencia sobre el que aplicar el procedimiento de cálculo.

## DISPOSICIÓN ADICIONAL SEXTA

Serán objeto de ajuste entre las diputaciones forales, de acuerdo con lo dispuesto en los artículos 16 y 29, los importes destinados a la devolución del impuesto sobre ventas minoristas de determinados hidrocarburos, como consecuencia de la sentencia del Tribunal de Justicia de la Unión Europea de 27 de febrero de 2014.

## DISPOSICIÓN FINAL

Excepcionalmente, si transcurrido el plazo de vigencia de la presente metodología no se hubiera promulgado una nueva ley reguladora de la distribución de recursos y determinación de aportaciones para los ejercicios siguientes, la presente metodología será de aplicación en todos sus términos para el ejercicio 2027 y siguientes.

Vitoria-Gasteiz, a 8 de octubre de 2021.

El Lehendakari,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

## BOSGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Baldin eta 24.2 artikuluan aipatzen diren behin-behineko interes likidoen zenbatekoa ekitaldi batean zero bada, hurrengo ekitaldietarako interesak kalkulatzea eragozten duen aurreko ekitaldiko balio baldintzatzaile baten ondorioz, Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak erabaki egokiak hartuko ditu kalkulu-prozedura aplikatu ahal izateko erreferentziako behin-behineko zenbatekoa zehazteko.

## SEIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Foru-aldundien artean doituko dute, 16. eta 29. artikuluetan xedatutakoaren arabera, zer zenbateko bideratu behar den zenbait hidrokarburoren txikizkako salmenten gaineko zerga itzultzera, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2014ko otsailaren 27ko epaiaren ondorioz.

## AZKEN XEDAPENA

Salbuespen gisa, metodologia honen indarraldia igarotakoan hurrengo ekitaldietarako baliabideen banaketa eta ekarpenen zehaztapena arautzeko lege berri bat aldarrikatzen ez bada, metodologia hau berau oso-osorik aplikatuko da 2027. ekitaldirako eta hurrengoetarako.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urriaren 8a.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

*I. ERANSKINA*
ANEXO I

## *KOEFIZIENTE BERTIKALAREN KALKULUA*
## CÁLCULO DEL COEFICIENTE VERTICAL

| | *FORU ALDUNDIAK* DIPUTACIONES FORALES | *EUSKO JAURLARITZA* GOBIERNO VASCO | *GUZTIRA* TOTAL |
|---|---|---|---|
| 1.– *ITUNAREN KUDEAKETATIK SORTUTAKO DIRU SARREREKIN FINANTZATU BEHARREKO GASTUAK* GASTOS A FINANCIAR CON INGRESOS DERIVADOS DE LA GESTIÓN DEL CONCIERTO | 15.265.376.000 | 10.242.417.475 | |
| 2.– *KENKARIAK* / DEDUCCIONES | -11.183.858.787 | -342.060.290 | |
| • *Estatuari ordaindu beharreko 2007ko kupo likidoa eta konpentsazioak* Cupo líquido al Estado y Compensaciones | -862.397.992 | | |
| • *2006ko kupoaren likidazioa eta konpentsazioak* Liquidación Cupo y Compensaciones | -86.028.130 | | |
| • *Enplegu Politika Aktiboak 4+7 kapituluak EEZP (1441/2010 Errege Dekretua)* Políticas Activas Empleo capítulos 4+7 SPEE (Real Decreto 1441/2010) | | -285.091.289 | |
| • *SAADen adostutako mailaren finantzaketa* Financiación del nivel acordado del SAAD | -18.429.190 | -418.420 | |
| • *EAEri egindako Ekarpenak* Aportaciones a la CAPV | -10.242.417.475 | | |
| • *L.H. Legeko 22.3. artikuluko politikak* Políticas art. 22.3 L.T.H. | | -31.136.581 | |
| • *Eusko Jaurlaritzaren ekarpena Gizarte-Zerbitzuen Funtsari* Aportación del Gobierno Vasco al Fondo de Servicios Sociales | 24.514.000 | -24.514.000 | |
| • *Eusko Jaurlaritzaren ekarpena euskara sustatzeari eta udal-eremuko plangintzari* Aportación del Gobierno Vasco a fomento del euskera y planificación en el ámbito municipal | 900.000 | -900.000 | |
| 3.– *FINANTZATU BEHARREKO GASTUAK* *GASTOS A FINANCIAR* | 4.081.517.213 | 9.900.357.186 | 13.981.874.399 |
| *ATERATZEN DEN KOEFIZIENTEA* *COEFICIENTE RESULTANTE* | 29,19 % | 70,81 % | |

*II. ERANSKINA*
ANEXO II

## ***DIRU BILKETARAKO GAITASUNA: DIRU BILKETAKO KONTZEPTUAK ETA EKONOMIAREN ADIERAZLEAK***
## **CAPACIDAD RECAUDATORIA: CONCEPTOS RECAUDATORIOS E INDICADORES ECONÓMICOS**

| *KONTZEPTUA* / CONCEPTO | *ADIERAZLEA* / *INDICADOR* |
|---|---|
| *Bakoitzaren lanagatiko atxikipenak*<br>Retenciones trabajo personal | • *Lansariak eta soldatak*<br>Sueldos y salarios |
| *PFEZren kuota diferentziala*<br>Cuota diferencial IRPF | • (1)<br>(1) |
| *Kapitalaren atxikipenak, ordainketa zatikatuak eta sozietateak*<br>Retenciones de Capital, Pagos fraccionados y Sociedades | • *Ustiaketaren gaindikin garbia*<br>Excedente neto de explotación |
| *BEZ guztira (Bakoitzaren kudeaketa + Estatuarekin Doikuntzak)*<br>Total IVA (Gestión Propia + Ajustes con el Estado) | • *Ekarpen-indizea*<br>Indice de aportación |
| *Garraiobideen gaineko zerga berezia*<br>Impuesto Especial sobre medios de transporte | • *Matrikulatutako beribil-kopurua*<br>N.º de turismos matriculados |
| *Fabrikazio-zerga berezien guztizkoa*<br>*(Bakoitzaren kudeaketa + Estatuarekin Doikuntzak)*<br>Total Impuestos Especiales Fabricación<br>(Gestión Propia + Ajustes con el Estado) | • *Ekarpen-indizea*<br>Índice de aportación |
| *Elektrizitatearen gaineko zerga berezia*<br>Impuesto especial sobre la electricidad (Gestión Propia) | • *Ekarpen-indizea*<br>Índice de aportación |

(1) *PFEZren kuota diferentzial garbiari dagokion zenbatekoa proportzioan egotziko zaio zerga horren osagarri bakoitzari.*
El importe correspondiente a la cuota diferencial neta del IRPF se atribuirá proporcionalmente a cada uno de los componentes de la recaudación de dicho impuesto.